


Eguzkia inoiz baino gertuagotik



ARG.: NSO/AURA/NSF.

Daniel K. Inouye eguzki-teleskopio berriak lehen irudiak eman ditu, Eguzkiaren azala aurrekaririk gabeko xehetasunez erakusten dutenak. Irudian ikusten diren gelaxkak Eguzkiaren plasma-burbuilak dira, barrualdetik azalerantz ateratzen direnak. [National Science Foundation-ek adierazi du](#) gelaxka bakoitzak Iberiar penintsularen neurria duela.

Teleskopioaren helburu zientifiko nagusia Eguzkiaren atmosferako eremu magnetikoak neurtzea da, eremu magnetiko horiek baitira eguzki-erupzioen eragileak eta, hortaz, Lurreko sistema askotan eragin dezaketenak: satellite bidezko komunikazioak eten ditzakete, aireko bidaietan eragin, sare elektrikoan eta gailu elektronikoetan akatsak sortu, eta abar. Eguzkiaren jarduera eta horrek gure planetan duen eragina hobeto ezagutzeko balioko du eguzki-teleskopio berriak.

Lau metroko irekidura du teleskopioak; munduko eguzki-teleskopioen artean handiena da. Bederatzi urtez aritu dira eraikitze-lanetan, eta hauek izan dira lehenengo irudiak. Datozen hilabeteetan, teleskopioa probatzen eta hobetzen arituko dira, Eguzkia ikertzen duen nazioarteko komunitate zientifikoak lanerako prest izan dezan. ●

Palma-olioa ekoiztea, gero eta kaltegarriagoa

Ikerketa baten arabera, baso zingiratsuetan palma-olioa ekoizteko lurra prestatzeak eta palmondo gazteak hazteak kalte handia eragiten dio ingurumenari —landaketa helduek baino askoz handiagoa—. Isurtzen diren berotegi-efektuko gasak bikoizteraino.

Palma-olioaren eskaera hirukoiztu egin da azken hemezortzi urteetan, 20 milioi tonatik 70 milioi tona baino gehiago sortzera igaro baita. Malaysia munduko bigarren ekoizlea da. Hango palma-ekoizleek baso zingiratsuak ekidin izan dituzte, eskatzen zuten prestatketa-lan handiagatik. Baina lurra urritu den heinean, ohikoa bihurtu da baso zingiratsuak drainatu eta palmondoak landatzea.

Zohikaztegi tropikal horiek drainatzean lurzoruko oxigeno-maila handitzen da, eta horrek materia organikoaren deskonposizio-tasa handitzen du; ondorioz, drainatutako zohikaztegietan CO₂-isuri handiak sortzen dira, eta baita berotegi-efektu askoz handiagoa duten beste gas batzuenak ere (CH₄ eta N₂O_g). Kalkulatu dutenez, baso zingiratsuak palmondo-landaketa bihurtzea eragiten ari den berotegi-efektuko gasen isuria Malaysiako isuriaren laurdena izan liteke. [Nature Communications aldizkarian argitaratu dituzte ikerketaren emaitzak](#). ●



Baso zingiratsu baten deforestazioa eta drainatzea, palmondo-landaketa bat ezartzeko, Malaysian.

ARG.: Stephanie Evers.